

**Aberri Eguna
2005**



Aberri Eguna 2005

Aberri Eguna hurbil dagoen honetan, LABek nazio eraikuntza proiekturako konpromisoa berretsi egiten du. Beste urte batean ere, Euskal Herria bizitasun handiko nazioa dela gauza ageria da. Euskal Herriak bere erabakiak hartu nahi ditu eta Europako zein nazioarteko herrien artean parte hartu nahi du, herri burujabe moduan.

Baina, era berean, beste urte batean ere, Espainiar eta Frantses estatuen jokabide antidemokratikoa salatu behar dugu, herri moduan garatzeko daukagun eskubidea ukatu egiten baitigute, eskubide hau nazioarteko itun eta adierazpenetan ere bildua izan bada ere. Herri guztiek libre determinatzeko eskubidea daukatela eta, eskubide honetan oinarriturik, euren egoera politikoa eta garapen ekonomiko, sozial eta kulturala libre erabakitzeko eskubidea daukatela onartzeari uko egiten diote. Eskubide hauen ukapena eta inposaketa politiken iraupena dira, hain zuzen, nazioarteko gatazka askoren sustraia, gurearena barne.

Honetaz gain, neoliberalismo ekonomiko eta politikoak korporazio trasnazional handien zerbitzura dagoen globalizazio eredu inposatzen digute eta honetan estatutik boteretsuenen laguntza ere badaukate, behar duten laguntza politiko eta militarra ematen baitiete. Politika neoliberal hauen ondorioak Planeta osotik zehar pairatzen dira eta eurekin batera injustizi zenbatu ezinak dakartzate: desberdintasun sozialak, genero bereizkeria, migrazio masiboak, baliabide naturalak kontrolatu ahal izateko gerrak, herrien kultura nortasunaren itomena eta pertsonen erabaki gaitasunaren murrizketak.

Era berean, Europar batasunak Estatu Batuek gidatzen duten eredu neoliberalarekin egin du bat, Lisboako Agendak bultzatutako estrategia ekonomikoen zein enplegu estrategien bitartez eta Itun Konstituzionalaren bitartez. Europako korporazio trasnazionalak eta estatuak azpajokoetan planeatu dute komenentzia paktua; honen bidez, kudeaketa politikoa parte hartzea ukatzen duen eredu teknokratiko bihurtzen ari da, eta gehiengoaren interesen eta premien gaintik, multinazionalen kapitalaren mesedetan dagoen eredu ekonomikoa sortzen ari da. Itun Konstituzionalak eskubide sozialak eta Europako herrien eskubideak ahaztu eta neoliberalismoa konstituzionalizatu eta nazioarteko harremanetan NATOren menpeko bihurtu du.

Inguru orokor honetan, hala ere, Euskal Herria bizitzen ari den momentuak aukera handiak eskaintzen ditu herri moduan onartzen ditugun erabakiak behingoz onartzeko eta bertoko emakume eta gizonen erabakiak ere demokraziaz behingoz izan daitezzen onartuak.

Eztabaida politikoa zabalik dago. Ibarretxe planak, ezker abertzalearen "Orain herria, orain bakea" eskaintzak, PSE-EEren proposamen estatutarioak, Ipar Euskal Herriaren instituzionalizaziorako ekarpenak, Nafarroako Amejoramendua berrikusteko eskaerak eta abarrek agerian uzten dute egoera politikoa mugimenduan dagoela eta, behar bezala bideratuz gero, hurrengo hilabeteetan egoera berri batera eraman gaitzakeela.

PP Espainiar estatuaren gobernutik irten izanak hau guztia sustatu badu ere, PSOEren gobernu berriak sortu zituen itzaropenak eta haize eta aldarre berrien promesak formalak eta hitzezkoak baino ez dira izan. PSOEk Aznarren ondarea, itun antiterrorista, kudeatzen jarraitzen du, bai eremu legislatiboetan, bai eta judizialeetan, polizialeetan eta mediatikoetan ere. Gauza antzekoa esan genezake Ipar Euskal Herriari dagokionez, Villepin Barne Ministroaren bisitaren ostean, Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan instituzionalizazio, euskara, sozioekonomia eta abarren inguruan egin izan diren aldarrikapen guztiei mespretxu politikoa erakutsi baitie.

Honekin batera, eskubide sozial eta politikoak urratzen dira, tortura eta errepresioa arma politiko moduan erabiltzen dira, preso politikoak bahituak bezala erabiltzen dituzte eta Euskal Herriaren eskubide politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak ukatu egiten dituzte. Hauxe da gaur egun Hegoaldean zein Iparraldean, estatuen strategiaren ardatza dira.

Edozelan ere, langile abertzaleok hainbat urte eman ditugu honezkero geure herriaren eskubideak defendatzen eta apustu tinkoa egiten dugu oinarrizko baldintza demokratikoak ezar daitezen, geure herriaren etorkizuna, egitura politikoa, garapen estrategia eta harreman sozial eta laboralen eredia euskal herritarrok erabaki ditzagun, estatuek eskurik sartu barik.

Burujabetasunarekin konprometiturik gauden sektoreoi, batez ere ezker abertzaleari, Espainiar eta Frantses estatuak inposatzen ari zaizkigun kostu politiko eta pertsonaletatik haratago, Lizarra-Garazitik gure herriko lurralde guztiak bilakaera politikoan murgildurik daude. Madrilek eta Parisek euskal errealitate nazionala neutralizatzeko inposatzen dizkiguten egitura juridiko-instituzional zaharkituak garai-tzera eramane behar gaitu bilakaera politiko honek.

Horregatik, funtsezkoa da geure ahaleginak indartzea bilakaera demokratiko honen oinarriak ezarri ahal izateko. Gaur, eztabaida nagusia ez da eskumen kopurua, erabakitze gaitasuna baizik. Euskal Herriak defizit estruktural hau gainditu behar du, hauxe baita bake eta normaltasun politiko egoeraren ardatz nagusia. Hau da, ez dago bakea eraikitze lasterbiderik. Estatuak behin betiko alboratu behar dituzte darabiltzaten eskemak, normalizazioa ez da kudeaketa administratiboaren bidetik izango. Eskema berriak eraiki behar dituzte: euskal herritarren borondatea aitorturik eta errespetaturik izango da normalizazio hori.

Helburu hau lortzeko, ezinbestekoa da inor alboratuko ez duen elkarrizketa eta negoziazio prozesua artikulatzea. Euskal bizitza politikoaren distentsio eta desmilitarizazio prozesua, agente guztien partetik. Injerentzia edo hipotekarik gabeko prozesua, euskal erakunde politiko, sindikal eta sozialak oinarri horiek eta trantsizio demokratikoaren ezaugarriak definituz joan daitezene Euskal Herri osoan.

Gatazkaren konponbiderako oinarrizko akordio demokratikoa, martxoaren 5ean Bilbon agente politiko, sindikal eta sozial multzo zabalak sinatu zuena, erreferentea izan behar da Euskal Herrian bakea eta demokrazia eraikitze prozesuan: elkarrizketa mahaia, akordioa eta herritarrei galdeketa. Protagonismoa euskal jendartearena izan behar da, eta bake egoera sortzeak bere borondate politikoa errespetatzea dakar berarekin batera.

Ezker abertzaleak mahai gainean ipini duen proposamenak diseinua eta metodologia ere ekartzen ditu, prozesu honetarako borondatea eta konpromiso sendoa erakutsi du, prozesu hau erraza izango ez bada ere eta, gainera, seguruenik, mugimendu taktiko anitzen pean egongo bada ere. LABek asmo osoa dauka prozesu hau bultzatzeko.

Ildo honetatik, nazio eta burujabetza estrategia artikulatzeko konpromisoa berresten dugu, euskal langileriaren interesetan oinarriturik. Estrategia honek loturik darama jendarte eredu solidarioa, partaide-tzakoa, justua ondasunen banaketan eta eskubide sozialak bermatzen duena. Genero parekidesunean, emakume eta gizonen arteko berdintasunezko harremanetan oinarritutako eredia. Ekonomia, jendarte eta ingurumena eraginkortasunez garatuko dituen eredia. Azken batez burujabetza prozesu honen eduki soziala gehiago sozial langilearen babesaren lortzeko bermea da.

LABen ustez, helburu honek, ilusioa eta konfiantza sortzeaz gain, sindikalismo abertzaleari konpromiso propioa hartzeko eskatzen dio, momentuko gorabehera edo interes partikularretatik haratago. Trantsizio politiko berri horren barruan, eremu instituzional eta sozialean zehaztutako taktiko eta estrategikoak egiteko sasoia da. Nazio eraikuntzarako erabakiak eta akordioak hartzeko sasoia da, eta hauen barruan daude, hain zuzen, lan harremanetarako euskal esparrua eta euskal esparru sozio-ekonomikoa.

Sindikalismo abertzalea prest egon behar da, beraz, indarrak batzeko eta aktibatze estrategia eraginkorra artikulatzeko, burujabetzan eta klase borrokan oinarriturik. Horregatik, hausnarketa sakona egitera deitzen dugu, geure ardura propioa da, beste inoren txandari itxaron barik.

Azkenik, 2005eko Aberri Egun honetan, LABek gure afiliatuei eta, oro har, ezker abertzalearen oinarri sozial osoari mobilizatzeko dei egin nahi die. Apirilaren 17a konponbide eta aldaketa politiko prozesua bultzatzeko data garrantzitsua izan behar da. Ezker abertzalearen proiektuaren inguruan indarrak batzea inoiz baino beharrezkoagoa da, funtsezko inbertsioa da etorkizun politiko berria zehazteko.

**GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA!
GORA EUSKAL HERRIA INDEPENDIENTE ETA SOZIALISTA!
GORA EUSKAL HERRIKO LANGILERIA!**

Euskal Herrian, 2005eko martxoan